



2013KO EKAINAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko ekainaren hogeita batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Inazio Esensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Haizea Mendia Insausti zinegotzia ez da bertaratu,

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko ekainaren 7an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 33 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA BAT MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA ZENTIMO BAT (21.299,01 €)ekoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK.-

Ibilgailuen aseguruak kontratatzeko espedienteak.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakin arazi du, ibilgailuen aseguruak kontratatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematera dihoala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, erabakitzen du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak ibilgailuen aseguruak kontratatzeko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.



Inprimagailuak hornitu eta beraien mantenimendurako kontratazio espedientea.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakin arazi du, inprimagailuen hornidura eta mantenimendua kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera dihoala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek hornidura eta zerbitzu hau behar dituela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, erabakitzen du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak inprimagailuen hornidura eta mantenimendua kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

Konputagailu pertsonalak hornitzeko kontratazio espedientea.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakin arazi du, Konputagailu pertsonalen hornidura kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera dihoala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek hornidura eta zerbitzu hau behar dituela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, erabakitzen du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak Konputagailu pertsonalen hornidura kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bi gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]